

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko euskararen sustapenari buruzko lankidetzaren protokolo orokorra.

2024ko ERANSKINA

Bildurik

Bingen Zupiria Gorostidi, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,

Ana Ollo Hualde, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria,

Maïder Behoteguy, Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria,

Honako hau,

Adierazten dute

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak, 2021eko uztailaren 20ko bileran, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Gobernuaren Herriarrekiko Harremanetako Departamentuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskarari buruzko hizkuntza-politikako gai jakin batzuetan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzeko 2021-2025 epealdirako protokolo orokorra izenpetzea onartu zuen.



Era berean, Nafarroako Gobernuak, 2021eko uztailaren 28an, protokolo hori izenpetzea onartu zuen.

Baita Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar Nagusiak, 2021eko urriaren 14ko bileran, protokolo hori izenpetzea onartu zuen.

Horrela, 2021eko urriaren 22an, Baionan hiru erakundeen arteko lankidetzaren protokolo orokorra sinatu zen.

Ondorioz, 2017-2021 lehen hitzarmenaren jarraian, 2021-2025 epealdirako indarraldia duen protokolo berriaren xedea da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren, eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskarari buruzko hizkuntza-politikako gai jakin batzuetan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzearen aldeko borondatea berrestea eta erakunde mailako harreman iraunkorrak egonkortzea eta garatzen jarraitzea, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz.

Elkarlana zehazteko prozedurari dagokionez, lankidetzaren protokolo orokorraren laugarren atalean adierazten da urtero jardueraren zehazten azterketa eta jardueraren planaren proposamena egitea.

Hori horrela, eranskin honek 2024ko jardueraren plana zehazten du.



Xedapenak

I. ARTIKULUA - Protokolo eranskinaren helburua

Eranskin honen xedea da 2024ko jardueraren plan zehatza finkatzea, euskararen sustapenari buruzko 2021-2025 lankidetzaren protokolo orokorrean, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean adostu lankidetzaren gauzatzeak.

II. ARTIKULUA- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Nafarroako Gobernuaren Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamenduaren eta Euskararen Erakunde Publikoak 2024an elkarlanean garatuko dituzten jarduerak

1. Hezkuntza eta helduen euskalduntzea

1.1. Hezkuntza

Ikasketak osoki edo partez euskaraz jarraitu nahi dituzten ikasleentzat EAE eta Nafarroako unibertsitateetako eta goi mailako eskoletako sarbide aukerak eta moduak.

2024rako partaideek adostua:

- Iparraldeko ikasleen eskaeren, oztopoen eta zailtasunen zaintza jarraitzea
- Ipar Euskal Herriko ikasleei EAEko eta Nafarroako goi mailako hezkuntzaren prestakuntza eskaintza ezagutarazteko ekintzak plantan ematea

1.2. Helduen euskalduntzea

a) Irakasleen berriarazko prestakuntza


2024rako partaideek adostua:

- Hiru aldeek helduen euskalduntzean ari diren profesionalei aukera ematea helduentzako euskararen irakaskuntzan erakunde bakoitzak antolaturiko prestakuntza ekintzetan parte hartzeko.

b) INGURA euskara online ikasteko ingurune digitala

2024rako partaideek adostua:

- INGURA euskara online ikasteko ingurune digitala proiektua Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ikasleen beharretara egokitzeko beharrezkoak diren egokitzapenak eta lanak aztertzea,
- Hiru aldeek helduen euskalduntzean ari diren erakundeei aukera ematea INGURA ikas-ingurune kudeatzaile izan daitezen, beren ikasleekin ikastaroak erabili eta jarraipena eta aholkularitza didaktikoa ahalbidetzeko.



c) HABE liburutegiko zerbitzuak eskaintzea

2024rako partaideek adostua:

- HABE Liburutegia, Euskararen Erakunde Publikoan zein Euskarabidean diharduten teknikarien dokumentu-hornitzaile izatea (liburu, artikulua edo beste, paperean zein digitalean). Zentzu horretan, teknikariek dituzten dokumentazio-beharrei erantzungo die HABE Liburutegiak dokumentu horiek teknikariei helaraziz.
- HABE Liburutegiak, teknikarien aldetik egon daitezkeen gaikako kontsulta espezifikoari bibliografia zehatza eskainiz erantzutea.
- Aipatu teknikariei, Alertak izeneko zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea.

1.3. Hizkuntza gaitasunaren egiaztapena

2024rako partaideek adostua:

- Ikasprozesuon ebaluazio zein egiaztatze gintzarako irizpideak, tresnak, garaiak eta jarraibideak egoki egituratu eta uztartzen jarraitzea.
- Euskaltegietakoa irakasle eta egiaztatze gintzan diharduten adituen arteko lan-eremu bateratuak antolatzen hastea.



2. Euskararen erabilpena sustatzea

2.1. Mugaz gaindiko egonaldiak

2024rako 3 partaideek adostua:

- 2024ko udan mugaz gaindiko egonaldien proiektu esperimentala obratzea.
- hurrengo urteetarako, proiektuari eman beharreko segida elkarrekin adostea.

2.2 Kirola

2024rako 3 partaideek adostua:

- Hiru lurraldeetan kirolean euskara sustatzeko dauden planak eta estrategiak partekatzea.
- EAEko kiroleko teknikarientzako eta entrenatzaileentzako sortuko diren euskarazko baliabideak eta materialak partekatzea.

2.3 Ingurune digitala

- a) Hizkuntza teknologiaren zein ingurune digitalaren esparruan sustatzen ari diren egitasmoak partekatzea

2024rako partaideek adostua:

- Euskararen Aholku Batzordearen Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Bereziak egindako lanak partekatzea.
- Hizkuntza teknologiaren esparruan sortzen diren egitasmoak partekatzea: Itzultzaile neuronala, Itzuli+ tresna barra...
- Common Voice proiektuaren baitan euskarazko ahots corpus baten eratzeko helburuarekin, euskal hiztunak beraien ahotsak grabatzera bultzatu nahi dituen komunikazio ekintzak antolatuz. Mozilla Fundazioak bultzatu adimen artifiziala erabiltzen duen ekimen horri esker, ahots teknologiaren arloan lan egiten duten enpresek euskarazko ahots sintesia integratzen duten tresnak eta aplikazioak garatu ahal izango dituzte.

- b) Interneten euskarak duen presentziaren garapena, bereziki euskarazko wikipediaren egitasmoaren bitartez

2024rako partaideek adostua:


- Alde bakoitzak Wikilarien Elkartearekin esku artean dituen egitasmo eta asmoen berri ematea elkarri.
- Wikipedian euskarazko edukiak eta erabilera garatzeko proiektu bateratu bat bideratzeko egingarritasuna aztertzea.



2.4 Arlo sozioekonomikoa

2024rako partaideek adostua:

- Merkataritza eta zerbitzu pribatuetan euskara erabiltzeko aukera ikusarazteko sortu "Euskaraz barra-barra" marka komunaren proiektuarekin jarraitzea.
- Eremu sozioekonomikoan euskararen erabileraren garapenari buruzko metodologiaren definizio lanei dagokion informazioa partekatzea.



2.5 Hedabideetan

2024rako partaideek adostua:

- Hiru lurraldeetan euskarazko hedabideak sustatzeko dauden praktikak eta estrategiak partekatzea.

- Hiru lurraldeetako euskal hedabideen audientzia neurketa komun en egingarritasuna aztertzea.

3. Euskararen aldeko gogoeta eta sustapena

3.1 Euskararen aldeko sentsibilizazioa eta sustapena

a) Euskaraldia: 2024rako, partaideek adostu dute euskararen lurralde mailako "Euskaraldia" egitasmoaren Koordinazio Batzordean parte hartzen segitzea, bereziki 2025eko edizioa prestatzeko.

b) Familia transmisioa: 2024rako, hiru partaideek adostu dute familia transmisioari buruzko lanak partekatzea eta bakoitzaren beharren arabera, egitasmo komunak edo desberdinak garatzeko aukeren aztertzea.

3.2 Gogoeta guneak

Gogoetarako alde batek sortutako guneetan parte hartzea: partaide bakoitzak antolatzen dituen gogoetaldi gune eta ekitaldietan (aholku batzordeak, talde tematikoak...) sarbidea ematea.

4. Ikerketa soziolinguistikoak


a) Euskararen Adierazle Sistema (EAS)

2024rako partaideek adostua:

- Hiru partaideek elkarlanean sortutako adierazle sistemaren garapena eta komunikazioa elkarrekin jarraitzea.
- Proiektuaren garapenarekin sistemaren eta adierazleen egokitzapen lanetan aritzea, lurralde bakoitzaren errealitateak hobeki kontuan hartuz.

b) Inkesta soziolinguistikoa

2024rako partaideek adostu dute VII. inkesta soziolinguistikoari dagozkion liburukiak argitaratzea eta zabaltzea euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.



5. Lankidetza Europako markoan

2024rako, hiru partaideek adostu dute elkarrekin proiektuak aurkeztea Mendebaleko Eremu Funtzionalari (MEF) dagokion POCTEFA europar programa berezian, euskararen hiru lurraldeak biltzen dituen eremu horretarako zehaztutako lurralde estrategia integratuarekin koherentzian.

III. ARTIKULUA- Jarduteko modua

Lankidetzarako protokolo orokorrean adostu bezala, jarraipenerako eratu den batzorde mistoak du protokoloari dagokion 2024ko Eranskin honen betetze-mailaren jarraipena eginen. Eranskin honen ekintza-programa garatzeko, partaideek, dauden batzordeak erabiliko dituzte, edo batzorde teknikoak eratuko dituzte alde bakoitzak bere ordezkariak izendatu ondoan.

Bestalde, lankidetza protokolo orokor honen baitan obratu eta ko-diruztatu proiektuen gauzatzeko baldintzak adosteko, honako prozedura adostua izan da:

- proiektuaren bideratzeko inizatiba daukan partaideak proiektuaren lehen aurkezpen bat egitea aurrekontu batekin
- bazkideek printzipiozko adostasuna ematea
- obratze modalitateak finkatzen dituen proiektu-fitxa baten prestatzea (ekintza, aurrekontua, partaide bakoitzaren zeregina eta finantzaketa, partaide bakoitzaren erabaki guneak kontuan hartzen dituen behin-behineko egutegia, komunikazioa...)
- beharrezkoa ikusten bada, partaide bakoitzaren erabaki guneetara hitzarmen baten proposatzea eta ondotik partaideek hitzarmena sinatzea.

IV. ARTIKULUA- Eranskinaren iraunaldia

Eranskin hau sinatzen denetik 2024ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, hiru alderdiek eranskin hau izenpetzen dute euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz, hiru aletan, ondoren aipatutako lekuan eta egunean.

Izenpea
Euskal Autonomía
Erkidegoko Gobernua




Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua



Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa



Baionan, Gasteizen eta Iruñean, 2024ko apirilaren 9an.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren izenean  Bingen ZUPIRIA GOROSTIDI Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua	Nafarroako Gobernuaren Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamenduaren izenean  Ana OLLO HUALDE Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria
Euskararen Erakunde Publikoaren izenean  Maider BEHOTEGUY, Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria	